

FAKULTATEKO BATZORDE IRAUNKORRAREN AKTA **(2022ko martxoaren 3a)**

Bertaratuak eta bertaratu ez direnak (IOAren 22.2 art.)

Dekanotza Taldea

1. Del Valle Loroño, Ana Irene – Dekanoa
2. Arlucea Ruiz, Esteban – Idazkaria

Administrazio burua

3. Asensio Espina, Kizitiñe

IRI iraunkorrak

4. Davila Legeren, Andrés
5. Meso Ayerdi, Koldo
6. Otero Gutiérrez, Beatriz
7. García Ureta, Irene

Beste IRI batzuk

8. Zabalondo Loidi, Beatriz (ezin etorria adierazi du)

AZP-KO LANGILEAK

9. Arandia Urtiaga, Igone

Ikasleak

2022ko martxoaren 3an, ostegunean, 11:30ean, UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Batzarraren Batzorde Iraunkorra bildu da ohiko deialdian, bigarren deialdian eskatutako quoruma betetzen dela egiaztatu ondoren. Dekano andrea izan da batzordeburua eta goian adierazitakoak bertaratu dira, aztergaien zerrendako puntu hauek lantzeko:

1. Aurreko akta irakurri eta onartzea.

Baiesenez onartu da Batzorde Iraunkorrek 2021eko abenduaren 17an eginiko bilkuraren akta.

2. Dekano andrearen txostena.

Dekano andreak lau arlo nabarmentzen dituen txosten labur baten berri eman du.

Plan estrategikoei dagokienez, 2024 arteko Unibertsitatearen plan estrategikoaren partaidetza zatia gauzatzen ari dira. Fakultateko hiru kidek parte hartzen dute: Ainhoa Novo eta Simón Peña (IRI) eta Jon Ander Kanpandegi (AZPko langilea). Testuinguru horretan, halaber, ikastegikoa ere lantzen ari da; espero da amaituta egongo dela 2022/23 ikasturtea hasterako.

Unibertsitate-irakaskuntzen antolamendua ezartzen den irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuari dagokionez, dekanok andreak aipatu du dekretuak aukera irekitzen duela gradu eta masterretako ikasketa planak hobetzeko, eta, era berean, horiekin lotutako administrazio prozedurak arintzeko.

Unibertsitate orientazioko jarduerari dagokienez, horiek guztiak martxan daude. Nabarmendu behar da enplegu azokak aurrez aurreko formatura itzuliko direla maiatzean.

Azkenik, ikastegiaren 40. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan, nabarmentzekoa da urteurrenak sortu duen unibertsitate dinamizazioa. Era berean, azpimarratu behar da Fakultateari sari berriak eman zaizkiola.

3. 2020/2021eko txostena eta kudeaketa plana.

Puntu hori Miguel Ángel Casado dekanorde jaunak aurkeztu du; dekanordea batzordeburuak gonbidatu du bilerara. 20/21eko txostena eta kudeaketa plana zeuden bezala onartu dira.

3.bis. Batzordeak eta epaimahaiak

Epaimahai eta batzordeetako kideen aldaketak onartu dira (Batzorde Iraunkorrekoak izan ezin) ikasleen estamentuan, 2021eko abenduaren 13an Ikasleen Kontseilua aldatzeko hauteskondeek eragindako aldaketengatik.

- Kalitate Batzordea: Oier Iriarte
- Euskara Batzordea: Lorea Eriz, Oier Amuskibar
- Hauteskunde Batzordea: Celia Rino
- Akademia Antolakuntzako eta Baliozkotzeen Batzordea: Naroa Apaolaza
- Berdintasun Batzordea: Álvaro Alejandro González, Iraia de la Torre
- Epaimahai Berezia: Celia Rino
- GRALen Batzordea: Julen Lur Eizaguirre
- Kultur Jardueren Batzordea: Lorea Eriz
- Ikus-entzuneko Materialaren Gertakarien Batzordea: Celia Rino
- Nazioarteko Harremanen Batzordea: Agus F. Hernández
- Prestakuntza Dualaren Batzordea: Beñat Díaz

3.ter. GRALen defentsa datak luzatzea

Ikastegiari unibertsitatera sartzeko probak egiteko datak Batzordeak GRALak defendatzeko datak onartu ondoren jakinarazi zaizkiola tarteko, GRALak defendatzeko datak egun bat luzatzeko beharra ikusi da (ekainaren 13ra arte, astelehena), unibertsitatera sartzeko probak egiteko datekin bat datozeelako. Batzordeak luzapena onartu du.

4. Azpiegiturak erabiltzeko baimena.

Bizkaia Aretoa erabiltzeko eskaerak abalatu dira 2022ko irailaren 8an eta 9an "Visualizar la historia" kongresua egiteko eta 2022ko uztailaren 28an "Debate político de la asociación Ágora XXI" ekitaldia egiteko.

5. Irakasleen plazak.

Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko AGC8L133712 plazaren lanpostuen zerrenda (11. eranskina) aldatzeko eskaeraren aldeko txostena egin da, plaza osotik plaza partziala izatera (4 ordu) igarotzeko.

6. Galde-eskeak.

Ez da egin.

Eta lantzeko beste gairik ez dagoenez, dekanu andreak Batzordearen bilera amaitutzat jo du 13:00etan, eta nik, idazkaria naizen aldetik, horren fede ematen du Leioan, 2022ko martxoaren 3an.

Dekanoak O.E.
Ana Irene del Valle

Idazkari akademikoa
Esteban Arlucea